

I. XEDAPEN OROKORRAK

ESTATUKO BURUZAGITZA

16824 *37/2020 Errege Lege Dekretua, abenduaren 22koa, Etxebizitzaren esparruan eta garraioen arloan kalteberatasun sozial eta ekonomikoko egoerei aurre egiteko premiazko neurriena.*

I

Espainiak erronka handiak dauzka etxebizitzaren esparruan. Besteak beste, arlo horretako estatu-legeria behar du, egiturazko konponbide orekatuak eskaintzeko eta etxebizitza duin eta egokirako eskubidea bermatzeko bidean aurrera egiteko. Izan ere, etxebizitza-eskubidea Espainiako Konstituzioaren 47. artikuluan ezartzen da, baita nazioarte-esparruan ere, Nazio Batuen Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak 25. artikuluan xedatzen baitu pertsona guztien funtsezko eskubidea dela etxebizitza edukitzea.

Egiturazko esparru horretan aurrera egin nahian, akordioak sinatu dira lurralde-administrazio askorekin, gure herrialdean dauden alokairuko etxebizitza sozialen kopurua luze gabe eta nabarmen gehitzeko. Hain zuzen ere, Etxebizitzaren eta Lurzoruaren Behatokiaren azken buletin bereziak erakusten duen bezala, Espainia osoan 290.000 etxebizitza baino ez daude alokairu sozialean; kopuru hori oso urrun dago alokairu soziala gizarte-babeserako tresna eraginkorra izateko behar denetik, bai eta, halaber, gure inguruko herrialde nagusietan dauden mota horretako etxebizitzaren kopuruetatik ere.

Nolanahi ere, orain, etxebizitzaren arloko erronkei heltzeko esparru orokorra eratu eta horretarako tresna publikoak sendotu ez ezik, ezinbestekoa da pandemiaren ondorioek gogorren kolpatu dituzten pertsonen eta familien egoera larriari berehala erantzutea. Izan ere, egungo egoeran, 926/2020 Errege Dekretuaren ondorioz alarma-egoera indarrean dela (926/2020 Errege Dekretua, urriaren 25ekoa, alarma-egoera deklaratzeko duena SARS-CoV-2 birusak eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko; luzapena: 956/2020 Errege Dekretua, azaroaren 3koa), arrisku larrian dago etxebizitza-eskubidea, gizaki oren oinarritzko eskubideetako bat.

Egoera hori onbideratu nahirik, zenbait neurri garrantzitsu ezarri dira dagoeneko, eta, horiei esker, familia askoren larritasuna arindu da. Neurri horietan nabarmendu beharrekoak dira 11/2020 Errege Lege Dekretuaren bidez ezarri direnak (11/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 31koa, Gizarte- eta ekonomia-arloan presako neurri osagarriak ezartzen dituena COVID-19ari aurre egiteko). Besteak beste, bertan behera utzi dira beste bizitegi-aukerarik ez duten maizter kalteberei etxea utzarazteko prozedurak eta haiek etxetik botatzeko prozedurak; aurrerantzean, aparteko luzapena aplikatu ahalko zaie epealdi honetan amaitzen diren etxebizitza-errentamenduko kontratuei, indarreko kontratuaren baldintzak mantenduz; errentaria kalteberatasun-egoeran badago eta errentatzailea edukitzaile handia bada, alokairua murriztu edo haren ordainketa geroratu ahalko da; ICOren bidez (Kreditu Ofizialeko Institutua), Estatuak bermatutako abaletan oinarritutako finantzaketa-laguntza iragankorrak eman ahalko dira, alokairua gehienez ere sei hilabetez ordaintzeko; eta, azkenik, 2018-2021erako Etxebizitzaren Estatu Planaren zuzkidura nabarmen gehitu da, laguntza-programa berria erantsi da eta planaren kudeaketa malgutu da, autonomia-erkidegoek konponbide azkarra eman ahal izateko etxebizitza-arazo larria duten herritarrei.

Gainera, neurri horiek guztiak bizi garen egoerara moldatzen ari dira, hura aldatu ahala, eta beren esparru materiala eta iraunaldia geroz eta zabalagoak dira, xedea gaizkien dauden herritarren babesa mantentzea eta sendotzea dela. Horretarako, bi errege lege-dekretu hauek onartu dira, besteak beste: 26/2020 Errege Lege Dekretua, uztailaren 7koa, COVID-19ak izan duen eraginari aurre egite aldera garraio- eta etxebizitza-arloko ekonomia suspertzeko neurriena; 30/2020 Errege Lege Dekretua, irailaren 29koa, Enpleguaren Aldeko Gizarte Neurriena.

Horrenbestez, etxebizitzaren arloan pertsonak eta familiak babestuko baditugu, konponbide eraginkorrak, zentzuzkoak eta orekatuak ezarri behar ditugu. Horretarako tresna juridiko egokiena errege lege-dekretua da, arrazoi sendoek babesten baitute aipatutako neurrien aparteko eta presako beharrizana.

Etxebizitzaren arloko neurrien aparteko eta presako beharrizanaren aldeko lehen arrazoia honako hau da: batetik, pandemiaren ondorioz, alarma-egoera jarri behar izan da indarrean, gure herrialdearen egoera soziosanitarioa inoiz ez bezalakoa delako eta horrek oso ondorio larriak eragin ditzakeelako herritarren osasunean; eta, bestetik, egoera ekonomikoa eta soziala hain da zaila, ezen familia askok beren etxebizitza gal baitezakete, eta, horrenbestez, nahitaezkoa da botere publikoek esku hartzea eta politika sozialetan eta etxebizitzaren arloko politiketan eragiteko eskura dauzkaten tresna guztiak abian jartzea.

Botere publikoek ahul jokatu dute azaldutako egoeretan, eta hori da, hain zuzen ere, neurrien presako beharrizanaren aldeko bigarren arrazoia. Adierazi den bezala, Espainian etxebizitza sozial gutxi daude (etxebizitza guztien % 2,5 baino ez dira). Ehuneko hori ez da inondik ere aski kalteberatasun-egoeran dauden herritarrei konponbide azkarrak eskaintzeko. Gainera, egun bizi dugun osasun-krisiak egoera larritu besterik ez du egin.

Hirugarrenik, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren datuen arabera, azken urteotan asko ugartu dira etxebizitza-utzarazpenak eta maizter-botatzeak, eta, horiei aurre egiteko, behar-beharrezkoa da neurriak ahalik azkarren ezartzea, organo judizialen eta gizarte-zerbitzu eskudunen arteko koordinazioa hobetzeko, bermatu behar baita ikuspegi sozialetik eta ekonomikotik kalteberatasun-egoera txarrean dauden pertsonak babestuta egotea. Beraz, herritar horiei laguntza-neurriak eskaini behar zaizkie bizi duten egoera larria gainditzeko.

Beste alde batetik, garraioaren arloko neurriak ere presaz ezarri behar dira, pandemiak eta alarma-egoerak garraio kolektiboko zerbitzuan izan duten eraginaren ondorioz ezinbestekoa baita sortu den egoerari aurre egiteko neurriak azkar ezartzea.

Adierazitako arrazoiek ondo baino hobeto justifikatzen dute neurriok errege lege-dekretu baten bidez onartzea. Izan ere, lege-proiektu bat izapidetzeak luze joko luke, eta etxerik gabe gelditzeko arriskuan dauden pertsonen ahalik azkarren eman behar zaie erantzuna. Horrenbestez, errege lege-dekretu hau Espainiako Konstituzioak 86. artikuluan ezartzen duenarekin bat dator, eta, gainera, ongi haztatu eta ebatzi dira inguruabar guztiak.

Horiek horrela, ezinbestekoa da etxebizitzaren gizarte-funtsa (kreditu-entitateen higiezinak) erabat operatibo egotea; horrez gainera, antzeko ekimena behar da bizitokiaren alokairuan espezializatutako sozietateen eta funtsen arloan, eta, horretarako, haien parte-hartzea arautu behar da, eta erraztasunak eman behar zaizkie lurralde-administrazio eskudunekin lankidetzan jardun dezaten, gizarte-politikak eta etxebizitza-politikak gauzatzeko tresna berriak ezartzeko.

Horregatik, funtsezkoa da etxebizitza-edukitzaile handiek, publikoek zein pribatuek, merkatu horretan esku hartzea. Izan ere, merkatua handitu egin behar da, baita profesionalizatu ere, berme tekniko eta juridiko hobekuntza eskaintzeko ondasun higiezinak egiten diren eragiketetan. Gainera, edukitzaile horien zeregina eskertu eta goraiatu behar da, baldin eta prezio onargarriak dauzkaten etxebizitzak ipintzen badituzte merkatuan, batez ere alokatzeko eskaintzen diren etxebizitzaren oreka berrezarri behar den esparruetan.

II

Beste alde batetik, bidaiarien errepideko garraioaren sektoreak jarduera ekonomikoa bultzatzen du: herritar guztien mugitzeko eskubidea bermatzen du eta lan-jarduerak, hezkuntza-jarduerak, osasun-jarduerak eta turismo-jarduerak egitea ahalbidetzen du.

Espainian, estatuaren eskumeneko bidaiarien hiriarteko errepideko garraio publikoa funtsezko elementua da, mugitzeko aukera bermatzen baitie Estatu osoko biztanleei.

Kalitate handikoa eta oso segurua da, eta arlo berean diharduten beste garraio mota batzuek baino eragin txikiagoa dauka ingurumenean eta energiaren kontsumoan. Estatuaren barruan, jarduera ekonomikoaren eta enpleguaren lehen mailako sortzailea da.

Estatuko Administrazio Orokorraren eskumeneko eta erabilera orokorreko bidaiarien errepideko garraio erregularrak 4.300 geraleku baino gehiago ditu, Espainiako 1.917

udalerritik gorako 2.549 herrigunetan ematen du zerbitzua, 30 milioi bidaiaritik gora garraiatzen ditu 233 milioi kilometro inguru eginez, eta mila autobus baino gehiago erabiltzen ditu. Sektore honetan 49 enpresa ari dira, eta 350 milioi euro inguru fakturatzen dituzte urtean.

Hala ere, bidaiarien errepideko garraioaren sektoreari kalte handia egin dio COVID-19aren osasun-krisiak. Alarma-egoera indarrean egon den aldian, izugarritzko jaitsiera izan da eskarian, % 90 eta % 100 bitartekoa. Horrek likidezia-arazo handiak sortu dizkie enpresei, eta arriskuan ipini du zerbitzuen bideragarritasuna, sektore honetan giza baliabideek eta kapitalak pisu handia dute eta.

Likidezia-arazoei eragina izan dute enpresen kaudimenean, likidezia-injekzioen edo kostu aldakorren murrizketaren inguruko neurriak desagertu ahala. Gainera, osasun-administrazioak ezarritako neurrien ondorioz langileen eta erabiltzaileen babesak eragindako kostuak gehitu egin dira: norbera babesteko ekipamenduak erabiltzen dira, babes-elementuak ipini dira, eta ibilgailuak ohi baino sarriago desinfektatu eta garbitu behar dira.

Nolanahi ere, COVID-19aren osasun-krisiak autobus-garraioan izandako lehen eragina gairitu ondoren, deseskalatzeari ekin zitzaion. Aldi horretan, eskariak gora egin zuen gutxika-gutxika, eta 2019ko aldi berean izandako eskariaren % 50era iritsi zen. Hala ere, 2020ko abuztuan eskariak behera egin zuen berriz ere, eta 2019ko aldi berean izandako eskariaren % 35-40 bitartean jarri zen. Harrezkero, ez du hobera egin, eta maila horretan geldirik dago.

Gainera, ondoren, beste alarma-egoera bat ezarri da; horretaz baliatuz, autonomia-erkidegoek beren lurraldeak itxi dituzte, eta, ondorioz, erkidegoen arteko mugimenduak, Estatuko Administrazio Orokorraren kontratueta ohikoak direnak, murriztu dira.

III

Halaber, Espainiako Konstituzioaren 51.1 artikulua ezartzen du botere publikoek kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsa bermatuko dutela, prozedura eraginkorrez babestuz haien segurtasuna, osasuna eta interes ekonomiko legitimoak.

Agindu hori beteko bada, kontuan hartu behar dira COVID-19aren pandemiak gizartean eta ekonomian izan dituen ondorioak. Izan ere, pandemiak gogor kolpatu ditu zenbait sektore, eta, halaber, eragin handia izan du kontsumo-harremanetan eta, ondorioz, baita kontsumitzaileen eta erabiltzaileen babesean ere. Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideak bermatzeko ardura nagusia botere publikoek dute, eta jarduketa bereziak egin behar dituzte beren ardura betetzeko.

Horren ildotik, errege lege-dekretu honen bidez, presaz aplikatu beharreko neurriak ezartzen dira, batez ere urruneko merkataritza-harremanetan aplikatu beharrekoak. Pandemiaren ondorioz, asko gehitu dira mota horretako harremanak, eta, hori dela eta, ezinbestekoa da kontsumitzaileek eta erabiltzaileek beren eskubideak erabiltzeko dituzten eragozpenak kentzea, bereziki konpainietako bezeroek beren arretarako zerbitzuak erabiltzeko dituzten eragozpen ekonomikoak. Horrenbestez, premiazkoa da gure arautegia egokitzea, hartara bat etor dadin bezeroen arretarako zerbitzuak telefonoz jasotzen dituztenei aplikatzen zaien «oinarrizko tarifa» kontzeptuaz Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak finkatu duen jurisprudentziarekin.

Beraz, orain arte indarrean egon den araubidea aldatzen da, bermatzeko bezeroen informaziorako eta arretarako bulegoak eta zerbitzuak diseinatzen direnean irisgarritasun unibertsalaren printzipioak betetzen dituzten baliabideak eta euskarriak erabiliko direla, edo, bestela, horien irisgarritasuna bermatzeko baliabide alternatiboak. Eta ezartzen da ezen, enpresaburuak kontratuz hitz egiteko telefono-linea bat jartzen badu kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskura, linea hori baliatzeak kontsumitzaileei eta erabiltzaileei eragiten dien kostua ezin dela izan telefono-linea finko edo mugikor estandarretara egiten diren deien kostua baino handiagoa.

Nolanahi ere, interes orokorreko oinarritzko zerbitzuren bat ematen duten enpresek kontsumitzaileen arretarako doako telefona eduki beharko dute. Neurri horiek bezeroen babesa eta defentsa bermatzen dituzte COVID-19aren pandemian; izan ere,

konfinamenduaren eta mugikortasun-murrizketen eraginez herritarrek etxetik erabili behar izan dituzte zerbitzu horiek eta, beraz, egokitu egin behar dira, haien erabilerak kontsumitzaileei kosturik ez eragiteko.

IV

Errege lege-dekretu honek hiru kapitulu, hiru artikulua, lau xedapen gehigarri, xedapen iragankor bat, bi azken xedapen eta hiru eranskin ditu.

I. kapituluan, etxebizitzaren arloko kalteberatasun-egoera jakin batzuei aurre egiteko presako zenbait neurri ezartzen dira.

1. artikulua bidez, 11/2020 Errege Lege Dekretua aldatzen da (11/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 31koa, Gizarte- eta ekonomia-arloan presako neurri osagarriak ezartzen dituen COVID-19ari aurre egiteko): hobekuntza juridiko eta sozial garrantzitsu batzuk egiten dira ohiko etxebizitza utzarazteko prozeduran.

Lehenengo eta behin, martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren 1. artikulua aldatzen da. Hain zuzen ere, segurtasuna eta bermeak ezartzen dira errentan hartutako etxebizitza bat ohiko bizilekutzat duten pertsonentzat: utzarazpena edo botatzea eteteko aparteko intzidentea eskatu ahaliko dute, baldin eta kalteberatasun ekonomikoaren ondorioz berentzat eta beraiekin bizi diren pertsonentzat beste bizileku-aukerarik aurkitu ezin badute; baliteke kalteberatasun-egoera hori COVID-19aren ondoriozkoa ez izatea, baina pandemiak larritu egin du, inolako ezbairik gabe.

Horrela, argitu egiten da gizarte-zerbitzu eskudunak errentariaren kalteberatasun-egoera baloratzeko prozedura, azkarrago eta modu eraginkorragoan aplika ditzaten kalteberatasun-egoeran dauden eta etxebizitza-alternatiba duinik ez duten familiei bizileku-aukera emateko neurri egokiak, baina izapideetan ongi ziurtatuta errentatzailearen egoera ere behar bezala haztatuko dela.

Bigarrenik, 1 bis artikulua gehitzen zaio martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuari, erantzun egokia emateko etxebizitza utzarazteko edo etxetik botatzeko prozedurak kalteberatasun ekonomikoko egoeran dauden eta bizileku-alternatibarik ez duten pertsonak ukitzen dituenen: epaileak ahalmena edukiko du errentaria etxetik botatzeko prozedura eteteko, kasuaren inguruabar zehatzak ongi haztatu ondoren, hariak eta gizarte-zerbitzu eskudunak etxebizitza duina edukitzeko konponbide egokiagoa eskaini arte, aparteko alarma-egoera indarrean dela.

V

II. kapituluan, errepideko garraioaren arloko neurriak ezartzen dira.

2. artikulua erabilera orokorreko bidaiarien errepideko garraio-zerbitzu publiko erregularrak kudeatzeko kontratuen oreka ekonomikoa berriz ezartzeari buruzkoa da, eta, hain zuzen ere, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak deklaratu zuen alarma-egoera amaitu ondoren COVID-19ak eragin dituen ondorioak arindu eta oreka ekonomikoa berriz ezartzeko kontuan hartu beharreko parametroen esparru argi eta zehatzaren berri ematen du.

COVID-19aren ondoriozko osasun-krisiak eragin larria izan du bidaiarien errepideko garraioan. Nolanahi ere, COVID-19aren osasun-krisiak autobus-garraioan izandako lehen eragina gairiditu ondoren, deseskalatzeari ekin zitzaion. Aldi horretan, eskariak gora egin zuen gutxika-gutxika, eta 2019ko aldi berean izandako eskariaren % 50era iritsi zen. Hala ere, 2020ko abuztuaren eskariak behera egin zuen berriz ere, eta 2019ko aldi berean izandako eskariaren % 35-40 bitartean jarri zen. Harrezkero, ez du hobera egin, eta maila horretan geldirik dago. Gainera, ondoren, beste alarma-egoera bat ezarri da; horretaz baliatuz, autonomia-erkidegoek beren lurraldeak itxi dituzte, eta, ondorioz, erkidegoen arteko mugimenduak, Estatuko Administrazio Orokorraren kontratuaren ohikoak direnak, murriztu dira.

Estatuaren eskumeneko eta erabilera orokorreko bidaiarien garraio-zerbitzu publiko erregularren kontratisten egoera ekonomikoa ahula denez, garraio mota honetan ari diren enpresen jarduera babestu beharra dago, krisia amaitu eta mugikortasun-murrizketak

kendu ondoren enpresa horiek gauza izan daitezten garraio-zerbitzuak bermatzeko eta gure herrialdeko garraio-sistema publikoa artatzeko, eta pertsonen mugikortasun-beharrak asetzeko; izan ere, hori guztia ezinbestekoa da herritarren bizi-kalitatea ziurtatzeko eta haiek beren eguneroko beharrianak asetzeko, bai eta oinarrizko zerbitzu publikoak eta funtsezko beste zerbitzu batzuk eskuratzeko ere.

Horiek horrela, kasuan kasuko kontratuaren kostuen egitura zein den eta enpresak likidezia-arazoak arintzeko zer neurri ezarri dituen, zerbitzuen eskaintza eta eskaria jaisteak desoreka handiagoa edo txikiagoa ekarriko zuen. Beraz, diru-sarreraren jaitziera kalkulatzeko, alde batetik, kontuan hartu behar da kontratuari atxikitako gutxieneko langileen kopuruari eragiten dion aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienterik aplikatu ote den, eta, beste alde batetik, ekainaren 9ko 21/2020 Errege Lege Dekretuak (COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiari aurre egiteko prebentzio, geldiarazte eta koordinazioko premiazko neurriena) 17. artikuluan ezartzen duen esparruaren barruan egin ez diren bidaien ondorioz kostuetan izan den murrizketari erreparatu behar zaio, aurreko urteko aldi bera erreferentziatuz hartuta. Gainera, ez dira ahaztu behar bidaiarien osasuna babestu behar eragin dituen gastu gehigarriak: langileei norbera babesteko ekipamenduak banatu zaizkie, babes-elementuak instalatu dira eta ibilgailuak sarriago desinfektatu eta garbitu dira.

Horrez gainera, prozedura azkarra ezartzen da Estatuaren eskumeneko eta erabilera orokorreko bidaiarien garraio-zerbitzu publiko erregularrak kudeatzeko kontratuetan berriz ere oreka ekonomikoa ezartzeko. Izan ere, hori azkar egin behar da, kasu batzuetan gerta litekeelako kontratuari uko egin eta zerbitzu publikoa bertan behera uzteak karga administratibo eta sozial gehiago ekartzea. Horretarako, azken konpentsazioaren aurrerakina ezartzen da, zerbitzua uzteko arriskuari aurre egiteko.

VI

III. kapituluan, kontsumitzaileak eta erabiltzaileak babesteko neurriak ezartzen dira. Horretarako, 3. artikuluan, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorraren eta beste lege osagarri batzuen testu bategina (azaroaren 16ko 1/2007 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zena) aldatzen da.

Zehazki, 21. eta 49. artikulua aldatzen dira.

21. artikulua aldatzen da (egiaztapenen araubidea eta bezeroen arretarako zerbitzuak), eta ezartzen da ezen, enpresaburuak kontratuz hitz egiteko telefono-linea bat jartzen badu kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskura, linea hori baliatzeak kontsumitzaileei eta erabiltzaileei eragiten dien kostua ezin dela izan telefono-linea finko edo mugikor estandarretara egiten diren deien kostua baino handiagoa. Hori dela eta, ezartzen da ezen, tarifakazio bereziko telefono-linea bat erabiltzeak kontsumitzaileei eta erabiltzaileei kostua eragiten badie, enpresaburuak tarifakazio bereziko telefono-lineari buruzko informazioaz gainera beste telefono-zenbaki baten berri ere eman behar diela kontsumitzaileei (izan finkoa, izan mugikorra), baldintza beretan. Gainera, baldintza jakin batzuk ezartzen dira interes orokorreko oinarrizko sektoreen zerbitzuetarako.

Orobat, 49. artikulua aldatzen da: kontsumitzaileen eta erabiltzaileen babesaren arloko arau-hausteen araubidea. Batetik, arau-haustetzat jotzen da bezeroen arretarako zerbitzuen inguruko betebeharrak ez betetzea; bestetik, kontratu batean abusuzko klausularen bat (hots. klausula deuseza) dagoela deklaratzeko kasuetan, arau-haustetzat jotzen da haren ondorioak ez kentzea.

VII

Jarraian, xedapen gehigarriak, xedapen iragankorra eta azken xedapenak azalduko dira.

Lehenengo xedapen gehigarriaren xedea da gizarte-zerbitzuek azaldu ditugun egoerei aurre egiteko eskura dauzkaten tresnak indartzea, eta, beraz, aukera ematen du «Genero-indarkeriaren biktimei, ohiko etxebizitza utzarazi zaien pertsoneri, etxerik gabeko pertsoneri eta oso kalteberak diren beste pertsona batzuei laguntzeko programa»ko laguntzak edo

2018-2021erako Etxebizitzaren Estatu Planeko laguntzak aplikatzeko. Halaber, beste laguntza-programa batzuk, autonomikoak edo tokikoak, abian jarri ahalko dira.

Gainera, administrazioen arteko lankidetzak ahalik handiena izan dadin eta ezartzen diren neurriak ahalik eraginkorrenak izan daitezzen, lehenengo xedapen gehigarrian ezartzen da ezen autonomia erkidegoek hileroko emango diotela jasotako komunikazioen, egindako txostenen, horiek egiteko epealdien eta gizarte-zerbitzuek ezarritako neurrien berri Gizarte Eskubideetako eta 2030 Agendako Ministerioari, haren ardura baitira Gobernuak gizarte-ongizatearen arloan, familiaren arloan, adingabeen babesaren arloan, kohesioaren arloan eta mendekotasuna edo desgaitasuna duten pertsonen arretaren arloan abiarazten dituen politikak.

Bigarren xedapen gehigarriaren arabera, jabeek eta errentatzaileek konpentsazioa eskatzeko eskubidea edukiko dute, baldin eta gizarte-zerbitzuek ezarritako neurriak ezin badira aplikatu 1. artikuluan eta 1 bis artikuluan ezartzen den prozedurako txostena egin ondoko hiru hiletan. Horrenbestez, xedapen gehigarri horretan arautzen den prozedurari esker, ez zaie kalterik eragingo botere publikoak gizarte-babeseko neurriak aplikatzean berandu ibili direla-eta ukitutako jabeen interes legitimoak; izan ere, konpentsazio bat ezartzen da etendura erabakitzen denetik etenaldia bukatu arte —organo judizialak hala erabakita edo alarma-egoera amaitzen delako— igarotzen den aldi luzean gertatzen den kalteari aurre egiteko.

Eta, konpentsazio hori aplikatzen dela bermatzeko, hirugarren xedapen gehigarrian, errege-dekretu bat onartzeko agintzen zaio Gobernuari; han, neurri egokiak zehaztuko dira autonomia-erkidegoek 2018-2021erako Etxebizitzaren Estatu Planeko baliabideak erabili ahal izateko beren lurralde-eremuan eskuratu ditzaketen konpentsazioak ordaintzeko.

Laugarren xedapen gehigarriaren bidez, dagoeneko indarrean dauden babes-neurriak sendotzen dira, kalteberatasun-egoeran dauden herritarrei uraren, elektrizitatearen eta gas naturalaren hornidura bermatu nahian, batez ere egungo egoera berezian. Izan ere, xedapen horretan, zenbait neurri ezartzen dira, kalteberatasun-egoeran dauden kontsumitzaileen babesa modu eraginkorrean sendotzeko, bat etorriaz pobrezia energetikoa identifikatzeko eta modu estrukturalen murrizteko garatu den esparruarekin.

Horrenbestez, egungo alarma-egoera indarrean dagoen artean, ezingo zaie eten energia elektrikoaren, gas naturalaren eta uraren hornidura urriaren 6ko 897/2017 Errege Dekretuak 3. eta 4. artikuluetan kontsumitzaile kalteberatzat, kalteberatasun handiko kontsumitzailetzat edo gizarte-bazterketa sufritzeko arriskuan dauden kontsumitzailetzat jotzen dituen pertsonen (errege-dekretu horrek kontsumitzaile kalteberaren figura, gizarte-bonua eta etxeko kontsumitzaileentzako beste babes-neurri batzuk arautzen ditu). Halaber, hornidura-kontratuaren titulartasuna egiaztatu ezin eta ondorioz ez kontsumitzaile kalteberatzat ez kalteberatasun handiko kontsumitzailetzat jo ezin diren pertsonen ere ezingo zaie eten hornidura, baldin eta urriaren 6ko 897/2017 Dekretuak 3. artikuluan ezartzen dituen gainerako baldintzak betetzen badituzte eta inguruabar hori frogatzen badute gizarte-zerbitzu eskudunak edo enpresa hornitzailearekin ari den bitartekari sozial batek egindako ziurtagiriaren bidez.

Gainera, aipatutako neurria indarrean dagoen aldia ez da zenbatuko ordainketa-errekerimendu fede-emailearen eta indarreko araudiari jarraituz ez ordaintzeagatik aplikatzen den hornidura-etenduraren arteko epealdiak kalkulatzeko.

Neurri horren aparteko eta presako beharrezko osasun-krisiaren eta krisi ekonomikoaren ondoriozko ezohiko egoerak, hornidura horiek ezinbestekoak izateak eta negua —energia gehien kontsumitzen den urtaroa— hurbil egoteak eragin dute.

Lehenengo xedapen iragankorrean, organo judizialean gaur egun izapidetzen ari diren prozeduretan errege lege-dekretu honek egindako aldaketak nola aplikatuko diren arautzen da, eta errentatzaileei eta jabeei berentzat ezarritako konpentsazioak nola emango zaizkien zehazten da.

Azken xedapenetako lehenean, Estatuak hizpide dugun arloa arautzeko daukan eskumen-titulua zehazten dira: Espainiako Konstituzioaren 149.1 artikuluan 1., 6., 8., 13., 18. eta 21. apartatuak. Izan ere, horien arabera, Estatuak eskumen eskusiboa dauka honako arlo hauek arautzeko, hurrenez hurren: konstituzio-eskubideak egikaritzean eta

konstituzio-eginbeharrak betetzean espainiar guztien berdintasuna bermatzen duten oinarritzko baldintzak; legeria prozesala; legeria zibila; jarduera ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarriak eta koordinazioa; administrazio publikoen araubide juridikoaren oinarriak; administrazio-kontratu eta -emakidei buruzko oinarritzko legeria; lurreko garraioak.

Azkenik, azken xedapenetako bigarrenak errege lege-dekretu hau indarrean noiz jarriko den xedatzen du.

VIII

Konstituzio Auzitegiak aparteko eta presako kasuetan gizartean eragin handia duten neurriak ezartzearen alde egin du askotan. Horretarako, baldintza hau ezartzen du: beharrezana modu esplizituan, formalean eta arrazoituta azaltzea, araugintzako testuak ohi bezala izapidetzea eragozten duen presakotasunarekin lotuta. Errege lege-dekretu honek Konstituzio Auzitegiak epai hauetan (besteak beste) ezartzen duen doktrina betetzen du: 6/1983 epaia, otsailaren 4koa, 5. oinarri juridikoa; 11/2002 epaia, urtarrilaren 17koa, 4. OJ; 137/2003 epaia, uztailaren 3koa, 3. OJ; 189/2005 epaia, uztailaren 7koa, 3. OJ. Errege lege-dekretua emateko arrazoa zera da, egungo geldotzearen, enplegu-galeren eta lansaioen eta soldaten murrizketa handien eta besteren eraginez errentan hartutako etxebizitza bat ohiko etxebizitzatzat duten pertsona askoren kalteberatasunak okerrera egitearen ondorio larriari aurre egin behar izatea. Aparteko eta presako beharrezana judizio politikoaren eta egokitasun-judizioaren mendean dago, eta hori Gobernuari dagokio (Konstituzio Auzitegiaren epaiak: 61/2018, ekainaren 7koa, 4. OJ; 142/2014, irailaren 11koa, 3. OJ). Gainera, ezartzen diren neurriak ezinbestekoak dira herritarren interes orokorrak babesteko; izan ere, badago (Konstituzio Auzitegiaren 139/2016 epaia, uztailaren 21ekoa, 3. oinarri juridikoa) «errege lege-dekretua onartzeko gaikuntza ematen duen egoeraren eta horri aurre egiteko errege lege-dekretuan ezartzen diren neurrien arteko lotura bat» [aspaldiko Konstituzio Auzitegiaren epaiak: 29/1982, maiatzaren 31koa (Konstituzio Auzitegiaren 1982 bilduma, 29), 3. OJ; oraintsuagokoak: 96/2014 epaia, ekainaren 12koa (2014 bilduma, 96), 5. OJ; 183/2014 epaia, azaroaren 6koa (2014 bilduma, 183), 4. OJ].

Errege lege-dekretu honek ez du eraginik izango Estatuaren oinarritzko erakundearen antolamenduan, Konstituzioaren I. tituluak arautzen dituen herritarren eskubide, eginbehar eta askatasunetan, autonomia-erkidegoen araubidean, ezta hauteskondeei buruzko zuzenbide orokorrean ere. Manuetako batzuek, batez ere 2. eta 3. artikuluek, denboramugak (unekoak eta apartekoak) ezartzen dizkiote jabetza-eskubideari, eta muga horiek bat datoz eskubide horren funtzio sozialarekin, honela ulertu behar baita: «ez da eskubidearen definizioaren edo erabileraren kanpoko muga hutsa, baizik eta eskubidearen beraren berezko osagaia» (Konstituzio Auzitegiaren 37/1987 epaia, 2. OJ). Beraz, eskubide hori errege lege-dekretu baten bidez arautzeak ez dakar ez hura desagerraraztea, ez beste zerbait bihurtzea, ez ezerezean uztea (Konstituzio Auzitegiaren 89/1994 epaia, martxoaren 17koa, 5. OJ). Gainera, Espainiako Konstituzioak 86.1 artikuluan ezartzen dituen muga materialak errespetatzen dira, ez baita jabetza pribaturako eskubidearen araubide orokorra arautzen, baizik eta aldi batez aldatzen haren elementu puntual bat, alokairu-errentaren kobrantza geroratzeari buruzkoa.

Orobat, errege lege-dekretu hau bat dator Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera bete beharreko printzipioekin: beharrezkotasuna, eraginkortasuna, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta efizientzia. Beharrezanaren eta eraginkortasunaren oinarrian interes orokorra dago; horixe da gaizkien dauden herritarrak babesteko ezartzen diren neurrien funtsa. Halaber, errege lege-dekretu honek proportzionaltasun-printzipioa betetzen du, ezartzen diren neurriak ezinbestekoak dira-eta aurretik aipatutako helburuak lortzeko (Konstituzio Auzitegiaren 139/2016 epaia, uztailaren 21ekoa). Gainera, Konstituzio Auzitegiak hainbat aldiz adierazi duen bezala (batez ere 37/1987 epai garrantzitsuaren 2. oinarri juridikoaz geroztik), jabetza-eskubidearen funtzio soziala eskubide horren edukiaren osagaitzat hartzen denez, ez dago araua proportzionala edo zentzuzkoa den ala ez zorrotz

aztertu beharrik, ez eta beraren oinarri faktikoak frogatu beharrik ere: aski da arauaren helburua jabetzaren funtzio sozialarekin bat etortzea, naturaltasunez, araua konstituzionala dela ebazteko. Errege lege-dekretua bat dator indarrean dagoen ordenamendu juridikoarekin; beraz, segurtasun juridikoaren printzipioa betetzen du. Azkenik, gardentasunaren printzipioari dagokionez, errege lege-dekretua izanik, ez dago zertan kontsulta publikoaren, entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapideak egin.

Horren arabera, Espainiako Konstituzioak 86. artikuluan aurreikusitako baimenez baliatuta, Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako ministroak proposatuta eta Ministro Kontseiluak 2020ko abenduaren 22ko bileran eztabaidatu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

I. KAPITULUA

Etxebizitzaren arloko neurriak

1. artikulua. *11/2020 Errege Lege Dekretua aldatzea (11/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 31koa, Gizarte- eta ekonomia-arloan presako neurri osagarriak ezartzen dituena COVID-19ari aurre egiteko).*

Aldatu egiten da 11/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 31koa, Gizarte- eta ekonomia-arloan presako neurri osagarriak ezartzen dituena COVID-19ari aurre egiteko, eta honela geratzen da idatzita:

Bat. Aldatu egiten da 1. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«1. artikulua. *Alarma-egoeraren iraunaldian, bertan behera uztea ekonomikoki kalteberak diren eta beste bizitegi-aukerarik ez duten pertsonen alokairuan hartuta duten etxea utzarazteko edo haiek alokairuan hartuta duten etxetik botatzeko prozedurak.*

1. Errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik 926/2020 Errege Dekretuak deklaraturako alarma-egoera amaitu arte (926/2020 Errege Dekretua, urriaren 25ekoa, alarma-egoera deklaratu duena SARS-CoV-2 birusak eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko; luzapena: 956/2020 Errege Dekretua, azaroaren 3koa), bai errentatzaileak zor dituen errenten edo diru kopuruen inguruko erreklamazioei buruzko hitzezko epaiketetan, bai Hiri Errentamenduen azaroaren 24ko 29/1994 Legearen arabera sinaturako kontratuen iraunaldia amaitu eta finkaren jabetza berreskuratzeko egiten direnetan (aurretik prozesua lege horren 441. artikuluan 5. apartatuan ezarritakoaren arabera eten dela edo ez), errentariak aparteko intzidentea eskatu ahalko dio epaitegiari, artikulua honetan ezartzen denarekin bat etorritik, utzarazpena edo botatzea ezohiko moduan etetea, baldin eta kalteberatasun ekonomikoaren ondorioz ezin badu beste bizileku-aukerarik aurkitu beretzat eta berekin bizi diren pertsonentzat.

Halaber, errentaria etxetik botatzeko eguna zehaztu ez bada, izan 440.3 artikuluan aipatzen den hamar eguneko epealdia amaitu ez delako, izan ikustaldia egin ez delako, epealdia etengo edo ikustaldia bertan behera geldituko da.

Etendura-neurri horiek apartekoak eta aldi baterako dira, eta ondorioz gabe geldituko dira alarma-egoera (urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuak deklaratu eta azaroaren 3ko 956/2020 Errege Dekretuak luzatu duena) amaitzen denean.

2. Aurreko apartatuan aipatzen den etendura gauzatzeko, errentariak frogatu beharko du errege lege-dekretu honen 5. artikuluan a) eta b) letretan aipatzen diren kalteberatasun ekonomikoko egoeretakoa batean dagoela; horretarako, 6.1 artikuluan aipatzen diren agiriak aurkeztu beharko ditu. Justizia Administrazioaren letratuak aurrekoaren berri emango dio demandatzaileari, eta hark hamar eguneko epealdia edukiko du epaitegian frogatzeko, aurreko bide berak erabiliz, bera ere 5. artikuluan a) letrean azaltzen den kalteberatasun ekonomikoko egoeran dagoela

edo zirkunstantzia horretan egoteko arriskuan izango dela baldin eta botatzea eteteko neurria ezartzen bada.

3. Azaldutako idazkiak aurkeztu ondoren, Justizia Administrazioaren letraduak berehala helarazi beharko die dokumentazio osoa gizarte-zerbitzuei, eta txostena egiteko eskatuko die. Txosten hori hamar eguneko epealdian egin beharko da, eta, han, errentariaren kalteberatasuna baloratu beharko da (eta, behar denean, errentatzailearena ere bai) eta administrazio eskudunak ezarri beharreko neurriak zehaztu beharko dira.

4. Aurkeztutako dokumentazioa eta gizarte-zerbitzuen txostena ikusita, epaileak autoa emango du, eta, haren bidez, errentaria etxetik botatzeko prozedura etetea erabakiko du, baldin eta frogatuzat jotzen badu errentaria kalteberatasun ekonomikoko egoeran dagoela eta, errentatzailea ere egoera berean bada, azken horren kalteberatasunak ez daukala lehentasunik. Errentaria kalteberatasun-egoeran dagoela frogatzen ez bada edo lehentasuna eman behar bazaio errentatzailearen kalteberatasunari, prozedurak aurrera egitea erabakiko du epaileak. Nolanahi ere, etendura ezartzen duen autoan berariaz adieraziko da alarma-egoera amaitu ondoren berez hasiko direla zenbatzen 440.3 artikuluan aipatzen den aldiko egunak, edo ikustaldia egiteko edo errentaria etxetik botatzeko eguna finkatuko dela, kasuan-kasuan prozesua zer egoeratan dagoen.

Kalteberatasuna frogatzen bada, administrazio publiko eskudunek gizarte-zerbitzuen txostenean ezartzen diren neurriak (edo egokitzat jotzen diren beste batzuk) aplikatu beharko dituzte, etenaldia amaitu aurretik, kalteberatasun-egoeran dagoen pertsonaren bizileku-beharrizana asetzeko, hau da, etxebizitza duinerako duen eskubidea bermatzeko. Neurri horiek aplikatutakoan, administrazio eskudunak epaitegiari jakinarazi beharko dio berehala, eta Justizia Administrazioaren letraduak prozeduraren etendura amaitzeko dekretua eman beharko du hiru egun igaro baino lehen.

5. Prozedura Zibilaren urtarrilaren 7ko 1/2000 Legeak 150.4 artikuluan ezartzen dituen ondorioetarako, errentaria ados dagoela joko da utzarazpena eteteko eskabidea aurkezte hutsagatik.

Halaber, kalteberatasun ekonomikoko egoera alegatzen duen idazkia aurkezte hutsa nahikoa izango da ondorioztatzeko errentatzailea ados dagoela artikulua honetan arautzen den komunikazioa egitearekin».

Bi. 1 bis artikulua gehitzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«1 bis artikulua. *Alarma-egoeraren iraunaldian, bertan behera uztea ekonomikoki kalteberak diren eta beste bizitegi-aukerarik ez duten pertsonen etxea utzarazteko prozedurak eta haiek etxetik botatzeko prozedurak, Prozedura Zibilaren urtarrilaren 7ko 1/2000 Legeak 250.1 artikulua 2., 4. eta 7. apartatueta arautzen dituen kasuetan.*

1. Errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik 926/2020 Errege Dekretuak deklaratuak alarma-egoera amaitu arte (926/2020 Errege Dekretua, urriaren 25ekoa, alarma-egoera deklaratu duena SARS-CoV-2 birusak eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko; luzapena: 956/2020 Errege Dekretua, azaroaren 3koa), Prozedura Zibilaren urtarrilaren 7ko 1/2000 Legeak 250.1 artikulua 2., 4. eta 7. apartatueta aipatzen dituen demanden inguruan egiten diren ahozko judizio guztietan epaileak ahalmena edukiko du pertsonak etxetik botatzeko prozedura alarma-egoera amaitu arte eteteko.

Etendura-neurri horiek apartekoak eta aldi baterako dira, eta ondorioz gabe gelditu dira alarma-egoera (urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuak deklaratu eta azaroaren 3ko 956/2020 Errege Dekretuak luzatu duena) amaitzen denean.

2. Aurreko apartatua ezartzen denaren arabera pertsonak etxetik botatzeko prozedura eten ahal izateko, etxebizitzak pertsona juridiko batena edo hamar etxebizitza baino gehiago dauzkan pertsona fisiko batena izan behar du, eta bertan

titulurik gabe bizi diren pertsonen kalteberatasun ekonomikoko egoeran egon behar dute, hau da, 5. artikulua a) letran azaltzen diren egoeretako batean.

Epaileak kasua haztatu eta proportzionaltasunez baloratu ondoren hartuko du erabakia; besteak beste, inguruabar hauek hartuko ditu kontuan:

a) Ondasun higiezinan sartzeko edo bertan gelditzea erabateko premiaren ondorioa den ala ez. Premia nolakoa den aztertzean, gizarte-zerbitzuek hurrengo apartatuarekin bat etorri egindako txostena baloratuko da.

b) Etxebizitzan bizi direnek agintari eskudunei etxebizitza duinerako eskubidea bermatzeko bizileku-aukera aurkitzen lagundu dieten ala ez.

3. Aurreko apartatuko etendura aplikatzeko, etxebizitza batean titulurik gabe bizi denak mendekotasuna eduki behar du, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak 2. artikulua bigarren apartatua xedatzen duenarekin bat etorri, edo, bestela, emakumearen kontrako indarkeriaren biktima izan behar du, edo bere kargura eduki behar du berarekin etxebizitza berean bizi den adingabe bat edo mendekotasun-egoeran dagoen pertsona bat. Nolanahi ere, etxebizitza batean titulurik gabe bizi diren pertsonen frogatu beharko dute errege lege-dekretu honen 5. artikulua a) letran aipatzen diren kalteberatasun ekonomikoko egoeretako batean daudela; horretarako, 6.1 artikuluan aipatzen diren agiriak aurkeztu beharko dituzte. Justizia Administrazioaren letratuak horren berri emango dio demandatzaileari edo salatzaileari.

4. Justizia Administrazioaren letratuak berehala helaraziko die dokumentazio osoa gizarte-zerbitzuei, eta txostena egiteko eskatuko die. Txosten hori hamabost eguneko epealdian egin behar da, eta, han, etxebizitzan bizi diren pertsonen kalteberatasuna baloratu behar da eta administrazio eskudunak ezarri beharreko neurriak zehaztu behar dira.

5. Etxebizitzan bizi direnak kalteberatasun-egoeran daudela egiaztaturik, epaileak gainerako inguruabar guztiak haztatuko ditu, eta, ondoren, hala badagokio, auto baten bidez erabakiko du haiek etxetik botatzeko prozedura etetea alarma-egoera amaitu arte. Eskatzaileak kalteberatasun-egoeran dagoela frogatzen ez bada edo 2. apartatua ezartzen denaren arabera ez badauka etendura eskatzeko eskubiderik edo 6. apartatua azaltzen diren inguruabarretako bat gertatzen bada, epaileak etxetik botatzeko prozedurak aurrera egitea erabakiko du.

Kalteberatasun ekonomikoa frogatzen bada, administrazio publiko eskudunek gizarte-zerbitzuen txostenean ezartzen diren neurriak (edo egokitzen diren beste batzuk) aplikatu beharko dituzte, etenaldia amaitu aurretik, kalteberatasun-egoeran dagoen pertsonaren bizileku-beharrizana asetzeko, hau da, etxebizitza duinerako haren eskubidea bermatzeko. Neurri horiek ezarritakoan, administrazio eskudunak berehala jakinarazi beharko dio epaitegiari, eta epaileak prozeduraren etendura amaitzeko eta etxetik botatzeko prozedurari ekiteko autoa eman beharko du hiru egun igaro baino lehen.

6. Prozedura Zibilaren urtarrilaren 7ko 1/2000 Legeak 150.4 artikuluan ezartzen dituen ondorioetarako, demandatua ados dagoela joko da, utzarazpena etetea eskubidea aurkezte hutsagatik.

7. Etxebizitzan sartzeko edo bertan gelditzea honako kasu hauetan gertatzen bada, ezingo da etxetik botatzeko prozedura eten:

a) Ondasun higiezinaren jabea pertsona fisiko izanik, pertsona horren ohiko bizilekua edo bigarren bizitokia bada (ongi frogatuta egon behar du), guztira zenbat etxebizitza dauzkan kontuan hartu gabe.

b) Ondasun higiezinaren jabea pertsona juridikoa izanik, pertsona horrek zuzenbidean baliozkoa den titulu baten bidez pertsona fisiko bati laga badio ohiko bizileku edo bigarren bizitokia modura.

- c) Higiezinaren sartzea edo bertan gelditzea delitu baten ondorioz gertatzen denean.
- d) Etxebizitza legez kanpoko jardueraren bat egiteko erabiltzen delako arrazoizko zantzuak daudenean.
- e) Ondasun higiezinaren jabea erakunde publikoa zein pertsona pribatua izanik, etxebizitza sozial gisa erabiltzen denean, baldin eta hura kudeatzen duen administrazioak edo entitateak dagoeneko eskatzaile bati esleitu badio.
- f) Etxebizitzan sartzea errege lege-dekretu hau indarrean jarri ondoren gertatzen denean».

II. KAPITULUA

Garraioen arloko neurriak

2. artikulua. *Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak deklaratu zuen alarma-egoera amaitu ondoren, erabilera orokorreko bidaiarien errepideko garraio-zerbitzu publiko erregularrak kudeatzeko kontratuen oreka ekonomikoa berriz ezartzea, COVID-19aren ondorioak arintzeko.*

1. Estatuko Administrazio Orokorraren eskuko eta erabilera orokorreko bidaiarien errepideko garraio-zerbitzu publiko erregularrak kudeatzeko kontratuetan, oreka ekonomikoa berriz ezarri ahalko da, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak deklaratu zuen alarma-egoera amaitzen denetik 2021eko ekainaren 30era arteko aldiari dagokionez, bai COVID-19ak eta bai haren kontra egiteko Estatuak ezarri dituen neurriek eragin duten egoerari aurre egiteko. Oreka ekonomikoa berriz ezartzeko, artikulua honetan zehazten dena aplikatu beharko da nahitaez. Eskubide hori ezingo da oinarritu kontratuari aplikatu dakizkiokeen ezinbesteko arrazoiek eragindako kalteei buruzko eta oreka ekonomikoa berriz ezartzeari buruzko arau orokorretan.

Kontratuaren oreka ekonomikoa berriz ezartzeko eskubidea erabiliko bada, ezinbestekoa da errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denean zerbitzua ematen aritzea eta hala jarraitzea 2021eko abenduaren 31ra arte gutxienez. Konpromiso hau ez betetzeak konpentsazio ekonomikoa itzuli beharra ekarriko du. Horrelakoetan, dirua itzultzeko prozedura abiaraziko da.

2. Oreka berriz ezartzeko, kontuan izango da zenbat murriztu diren diru-sarrerak bidaiarien eskariaren jaitsieraren ondorioz 2020ko ekainaren 22tik 2021eko ekainaren 30era bitartean (biak barne). Kalkuluak egiteko, artikulua honen I. eranskinean xedatzen dena aplikatuko da. Horrez gainera, kontuan hartuko da zenbat murriztu diren ustiapen-kostuak bidaiaren kopurua jaistearen ondorioz, zein izan diren lan-kostuak erreferentzia-aldikoekin konparatuta, zenbat izan diren egin gabeko kilometroen kostu finakoak eta zer kostu berri eragin dituen zerbitzuan erabilitako ibilgailuak desinfektatzeak. Erreferentzia-aldia 2019ko aldi bera da.

3. Oreka ekonomikoa berriz ezartzeko eskabidea Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioi Lurreko Garraioaren Zuzendaritza Nagusiari aurkeztu behar zaio errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik hogeita egun baliodun pasatu baino lehen, eta edukiak II. eranskineko A apartatuaren a) letran eta B apartatuaren a), b) eta c) letretan zehazten dena izan behar du nahitaez.

4. Aurreko puntuan arautzen den eskabidea gorabehera, 2021eko abuztuaren 31 baino lehen Lurreko Garraioaren Zuzendaritza Nagusira bidali beharko dira II. eranskinean aipatzen diren datuak eta gainerako dokumentazioa.

5. Oreka ekonomikoa berriro ezartzeko eskubidea onartzeko ezinbestekoa izango da enpresa kontratistak frogatzea honako informazio hau egunean duela eta Lurreko Garraioaren Zuzendaritza Nagusira bidali duela:

a) Datu estatistikoak, Lurreko Garraioaren Zuzendaritza Nagusiaren 2019ko ekainaren 6ko ebazpenaren arabera aitortuak; ebazpen horren bidez Estatuaren

eskumeneko eta erabilera orokorreko bidaiarien errepideko garraio-zerbitzu publiko erregularren kontratistek eman beharreko ustiapenari buruzko informazioa zehazten da.

b) Kontratuaren 2019ko ustiapen-kontua, maiatzaren 29ko PRE/907/2014 Aginduan xedatzen denarekin bat etorriz.

6. Ebazpena Lurreko Garraioaren Zuzendaritza Nagusiak emango du, 2021eko urriaren 31 baino lehen. Egun horretatik aurrera, eskabidea ezetsizat jo ahalko da. Ebazpenak administrazio-bidea amaituko du.

7. Jarduketa hau Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioaren aurrekontuan baliagarri dauden diru kopuruarekin finantzatuko da. Aurrekontuan baliagarri dagoen dirua I. eranskinaren arabera kalkulaturako konpentsazioen batura baino gutxiago bada, eskabide bakoitzari esleituko zaion zenbatekoa baliagarri dagoen diru kopuruarekiko proportzionala izango da.

8. 2021eko maiatzaren 31rako, oreka ekonomikoa berriz ezartzeko eskabidea aurkezten duen kontratista bakoitzari III. eranskinaren arabera dagokion diru kopurua ordainduko zaio, artikuluko honetan xedatzen denaren arabera jaso dezakeen konpentsazioaren aurrerakin gisa. Ebazpena ematen denean, aurrerakina konpentsazioa baino handiagoa bada, dirua itzultzeko prozedura abiaraziko da. Aurrerakina jasotzeko, ez da aurkeztu behar ez abalik, ez bermerik. Aurrerakin-ordainketei ez zaizkie aplikatuko abenduaren 27ko EHA/4261/2004 Aginduak, 2005eko ekitaldiko diru-aurrekontua onartzen duenak, hirugarren apartatuan ezartzen dituen mugak.

9. Oreka ekonomikoa berriz ezartzeko eskabidea Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioak kudeatuko du, Garraioetako eta Mugikortasuneko Idazkaritza Nagusiko Lurreko Garraioaren Zuzendaritza Nagusiaren bitartez. Hori dela eta, artikuluko honetan azaltzen diren irizpideak aplikatuz funts horretako transferentziak esleitzeko eta betearazteko eskumena Lurreko Garraioaren Zuzendaritza Nagusiaren titularrak dauka, eta, horrez gainera, transferentzia horien gastuak onartzeko eta haiei dagozkien konpromisoak eta likidazioak baimentzeko eskumena ere badauka. Prozedura agintzea eta bideratzea zuzendaritza nagusi horren organo eskudunaren egitekoak izango dira.

10. Prozedura osoa Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioaren egoitza elektronikoen bidez egingo da; hona esteka: https://sede.mitma.gob.es/SEDE_ELECTRONICA/LANG_CASTELLANO/OFICINAS_SECTORIALES/TTE_CTRA/CONCESIONES_PERMANENTES/REEQUILIBRIO_COVID19.

Prozedurako administrazio-egintza guztiak Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioaren egoitza elektronikoen argitaratuko dira. Egintza horiek egoitza elektronikoen argitaratzeak jakinarazpenaren ondorioak sortuko ditu.

11. Estatuko Administrazio Orokorraren eskuko eta erabilera orokorreko bidaiarien errepideko garraio-zerbitzu publiko erregularren kudeatzeko kontratuetan, hamabost hilabete gehituko da atxikitako ibilgailuen gehieneko antzinatasuna.

III. KAPITULUA

Kontsumitzaileak eta erabiltzaileak babesteko neurriak

3. artikulua. *Azaroaren 16ko 1/2007 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorraren eta beste lege osagarri batzuen testu bategina aldatzea.*

Aldatu egiten da Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorraren eta beste lege osagarri batzuen testu bategina, azaroaren 16ko 1/2007 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua, eta honela geratzen da idatzita:

Bat. Aldatu egiten da 21. artikulua 2. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

«2. Enpresek kontsumitzailearen edo erabiltzailearen esku jarritako informaziorako eta arretarako bulegoek eta zerbitzuek haren kezak eta erreklamazioak jaso izana ziurtatu behar dute; horretarako, identifikazio-gako bat

eta idatzizko ziurtagiri bat emango diote, paperean edo beste euskarri iraunkor batean. Zerbitzu horiek, beren arreta-eginkizunak betetzeko, telefonoa edo beste baliabide elektronikoren bat erabiltzen badute, zuzeneko arreta pertsonala bermatu beharko dute, eskura dituzten beste baliabide tekniko batzuk osagarri gisa erabiltzeko aukera baztertu gabe.

Bezzeroaren informazio eta arretarako bulegoak eta zerbitzuak irisgarritasun unibertsalaren printzipioak betez diseinatuko dira, eta, hala dagokionean, irisgarritasun-aukerak bermatzen dituzten ordezkotako baliabideak erabiliz.

Enpresaren gainerako jarduerekin lotuta bezeroari zuzendutako arreta-zerbitzuak garbi identifikatu beharko dira; zerbitzu hori ez da, inola ere, merkataritza-komunikaziorako jarduerak erabiltzeko edo hedatzeko erabiliko.

Enpresaburuak kontratuez hitz egiteko telefono-linea bat jartzen badu kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskura, linea hori baliatzeak kontsumitzaileei eta erabiltzaileei eragiten dien kostua ezingo da izan telefono-linea finko edo mugikor estandarretara egiten diren deien kostua baino handiagoa.

Aurreko paragrafoarekin bat etorritik, tarifakazio bereziko telefono-linea bat erabiltzeak kontsumitzaileei eta erabiltzaileei kostua eragiten badie, enpresaburuak tarifakazio bereziko telefono-lineari buruzko informazioaz gainera beste telefono-zenbaki baten berri ere eman beharko die kontsumitzaileei (izan finkoa, izan mugikorra), baldintza beretan.

Aurrekoa gorabehera, interes orokorreko oinarrizko zerbitzuen bat ematen duten enpresek kontsumitzaileen arretarako doako telefonoa eduki beharko dute. Hori dela eta, honako zerbitzu hauek oinarrizko izango dira: uraren, gasaren eta elektrizitatearen hornidurak; finantza-zerbitzuak eta aseguru-zerbitzuak; posta-zerbitzuak; aireko garraioa, trenbide-garraioa eta errepideko garraioa; osasunaren babesa; saneamendua eta hondakinak; legez ezartzen diren gainerako guztiak».

Bi. Aldatu egiten da 49. artikulua 1. apartatuaren i) letra, eta p) letra gehitzen da; honela geratzen dira idatzita:

«i) Kontratuetan abusuzko klausulak sartzea, edo, epai bidez klausula bat abusuzkoa dela adierazi edo administrazio-bidean zehapena ezarri ondoren, haren ondorioak ez kentzea».

«p) Arau honetan aipatzen diren bezeroen arretarako zerbitzuen inguruko betebeharrak ez konplitzea».

Lehenengo xedapen gehigarria. *Administrazio publikoen eta haien menpeko gizarte-zerbitzuen txostenak.*

1. 11/2020 Errege Lege Dekretuak (11/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 31koa, Gizarte- eta ekonomia-arloan presako neurri osagarriak ezartzen dituena COVID-19ari aurre egiteko) 1. eta 1 bis artikuluetan aipatzen dituen gizarte-zerbitzuen txostenetan, ordezkotako bizileku-aukera eskaini ahalko da «Genero-indarkeriaren biktimei, ohiko etxebizitza utzarazi zaien pertsonen, etxerik gabeko pertsonen eta ahultasun berezian dauden beste pertsona batzuei laguntzeko programa»ko laguntzak edo 2018-2021erako Etxebizitzaren Estatu Planeko laguntzak aplikatuz; horiez gainera, administrazio publiko autonomikoen eta tokiko administrazio publikoen ere laguntzak ezarri ahalko dituzte xede bererako.

2. 11/2020 Errege Lege Dekretuak (11/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 31koa, Gizarte- eta ekonomia-arloan presako neurri osagarriak ezartzen dituena COVID-19ari aurre egiteko) 1. eta 1 bis artikuluetan aipatzen dituen kalteberatasun-egoeretan daudenei arreta emateko gizarte-zerbitzuek proposatzen dituzten neurriak eraginkorrak diren ala ez aztertzeko, autonomia-erkidegoek hileroko eman beharko diote Gizarte Eskubideetako eta 2030 Agendako Ministerioari jasotako komunikazioen, egindako txostenen, horiek egiteko epealdien eta ezarritako neurrien berri. Horretarako, Gizarte Eskubideetako eta 2030 Agendako Ministerioak aipatutako informazioa bidaltzeko eredia

onartuko du, agindu baten bidez, 2021eko urtarrilaren 31 baino lehen. Gainera, informazioa ukitutako administrazio publiko guztien eskura jarriko du.

Bigarren xedapen gehigarria. *Errentatzaileek eta jabeek konpentsazioa jasotzeko eskubidea.*

1. 11/2020 Errege Lege Dekretuak (11/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 31koa, Gizarte- eta ekonomia-arloan presako neurri osagarriak ezartzen dituen COVID-19ari aurre egiteko) 1. artikuluan arautzen duenari jarraituz aparteko etendura aplikatzen zaien errentatzaileek eskubidea edukiko dute konpentsazioa eskatzeko, hurrengo apartatuetan ezartzen den bezala, baldin eta administrazio eskudunak ez baditu ezartzen, gehienez ere hiru hilabetean, kalteberatasun-egoeran dauden pertsonak etxebizitza duina edukitzeko aukerari buruz gizarte-zerbitzuek egiten duten txostenean ezarritako neurriak. Hiru hilabeteko epealdia txostena egiten denetik aurrera zenbatuko da.

2. Konpentsazioaren zenbatekoa honako hauen batura izango da: batetik, higiezina dagoen inguruan etxebizitza alokatzeagatik batez beste ordaindu beharko litzatekeena, erreferentziatzen hartuta etxebizitza-aloairuen prezioen indizeak edo errentamenduaren merkatuko beste erreferentzia objektibo batzuk; bestetik, etendura erabakitzen denetik harik eta epaitegi batek hala agindu duelako edo alarma-egoera amaitu delako hura bertan behera geratzen den arte errentariak egindako gastu arruntak (frogatuak). Hala ere, zenbateko hori errentatzaileak jasotzen zuen errenta baino handiagoa bada, konpentsazioa honako hau izango da: aurrean adierazitako aldian jaso ez den errentaren eta gastu arrunten batura.

3. Konpentsazioa jasotzeko eskabidea urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuak deklaraturako alarma-egoera bertan behera gelditu eta hilabete pasatu arte aurkeztu ahalko da. Errentatzaileak bidezkoa deritzon konpentsazioa zein den azaldu beharko du, arrazoiak emanez eta aurrean aipatu diren irizpideak oinarritzat hartuz.

4. 11/2020 Errege Lege Dekretuak (11/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 31koa, Gizarte- eta ekonomia-arloan presako neurri osagarriak ezartzen dituen COVID-19ari aurre egiteko) 1 bis artikuluan xedatzen duenarekin bat etorritik ezartzen diren neurrien eraginpeko etxebizitzaren jabeek konpentsazioa eskatu ahalko dute, baldin eta administrazio eskudunak ez baditu ezartzen, gehienez ere hiru hilabetean, gizarte-zerbitzuek kalteberatasun-egoeran dauden pertsonen arreta emateko egiten duten txostenean ezarritako neurriak eta jabeak frogatzen badu etxetik botatzeko prozedura eteteak kalte ekonomikoa eragin diola, aipaturako pertsonak etxebizitzan sartu aurretik hura salgai edo errentan jarrita zegoela eta.

5. Egiaztatzen bada prozedura eteteak jabeak kalte ekonomikoa eragin diola, aurreko apartatuan ezartzen den bezala, konpentsazioaren zenbatekoa honako hauen batura izango da: batetik, higiezina dagoen inguruan etxebizitza alokatzeagatik batez beste ordaindu beharko litzatekeena, erreferentziatzen hartuta etxebizitza-aloairuen prezioen indizeak edo errentamenduaren merkatuko beste erreferentzia objektibo batzuk; bestetik, etendura erabakitzen denetik harik eta auto batek agindu duelako edo alarma-egoera amaitu delako hura bertan behera geratzen den arte jabeak egindako gastu arruntak (frogatuak).

6. Konpentsazioa jasotzeko eskabidea urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuak deklaraturako alarma-egoera bertan behera gelditu eta hilabete pasatu arte aurkeztu ahalko da. Etxebizitzaren titularrak bidezkoa deritzon konpentsazioa zein den azaldu beharko du, arrazoiak emanez eta aurretik aipatu diren irizpideak oinarritzat hartuz.

Hirugarren xedapen gehigarria. *2018-2021erako Etxebizitzaren Estatu Planeko baliabideak erabiltzea.*

Errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik hilabete pasatu baino lehen, Gobernuak, errege-dekretu baten bidez, behar diren neurriak onartuko ditu, autonomia-erkidegoek 2018-2021erako Etxebizitzaren Estatu Planeko baliabideak erabili ahal izateko (plan hori martxoaren 9ko 106/2018 Errege Dekretuak arautzen du). Horrela, errege lege-

dekretu honek 1. eta 1 bis artikuluetan ezartzen duenaren arabera autonomia-erkidegoen lurralde-eremuan eman beharreko konpentsazioei aurre egin ahalko zaie. Errege-dekretu horretan, halaber, eskabideak aurkezteko, izapidetzeko eta ebazteko prozedura arautuko da.

Laugarren xedapen gehigarria. *Kontsumitzaile kalteberei uraren hornidura eta energiaren hornidura bermatzea.*

1. Egungo alarma-egoera indarrean dagoen artean ezingo zaie eten energia elektrikoaren, gas naturalaren eta uraren hornidura urriaren 6ko 897/2017 Errege Dekretuaren 3. eta 4. artikuluen arabera kontsumitzaile kalteberatzat, kalteberatasun handiko kontsumitzailetzat edo gizarte-bazterketa pairatzeko arriskuan dauden kontsumitzailetzat jotzen direnei —errege-dekretu horrek kontsumitzaile kalteberaren figura, gizarte-bonua eta etxeko kontsumitzaileentzako beste babes-neurri batzuk arautzen ditu—. Gas naturala edo ura hornitzen duten enpresen aurrean kontsumitzaile bat kaltebera dela egiaztatzeko, aski izango da elektrizitatearen bonu soziala jasotzen duela adierazten duen azken faktura aurkeztea.

2. Gainera, aurreko kontsumitzaileen kasuan, neurri hori indarrean dagoen aldia ez da zenbatuko ordainketa-errekerimendu fede-emailearen eta ez ordaintzeagatik aplikatzen den hornidura-etenduraren arteko epealdien ondorioetarako (epealdiok indarreko araudian ezarrita daude).

3. Halaber, hornidura-kontratuaren titulartasuna ez egiaztatu arren urriaren 6ko 897/2017 Errege Dekretuaren 3. artikuluekin bat etorri kontsumitzaile kalteberatzat edo kalteberatasun handiko kontsumitzailetzat jotzeko ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsonen ere ezingo zaie eten hornidura. Egoera horretan daudela frogatzeko, gizarte-zerbitzu eskudunak edo enpresa hornitzailearekin ari den bitartekari sozial batek egindako ziurtagiria aurkeztu beharko dute. Horrekin batera, honako dokumentu hauek ere aurkeztu beharko dituzte:

a) Etxebizitzako hornidura-puntuaren kontsumitzailearen IFZren edo AIZren fotokopia, eta harekin ahaidetasun-lotura edo antzeko loturaren bat duten beste pertsona batzuekin eratan duen bizikidetzaren unitateko kide guztiena, eta, behar denean, etxebizitzan bizi diren eta kontsumitzailearekin ahaidetasun-loturarik edo antzeko loturarik ez duten pertsona guztiena ere bai.

b) Aurreko a) letran aipatzen diren pertsona guztien indarreko errolda-ziurtagiria, banakakoa edo baterakoa. Eskabidea aurkezteko, ez da beharrezkoa izango etxebizitzan erroldatuta dauden guztiak ados egotea.

Apartatu honetan ezartzen denaren ondorioetarako, 7/2013 Errege Lege Dekretuak ezartzen duenaren arabera (7/2013 Errege Lege Dekretua, ekainaren 28koa, Tributuei, aurrekontuei eta ikerketa, garapena eta berrikuntza sustatzeari buruzko premiazko neurri buruzkoa), bitartekari sozialak dira Estatuko Administrazio Orokorren hirugarren sektoreko entitate laguntzaile diren gizarte-ekintzako hirugarren sektoreko entitateak.

Gizarte-zerbitzu eskudunek edo bitartekari sozialek eta enpresa hornitzaileek kontsumitzaileen datu pertsonalak erabili nahi badituzte, haien adostasuna beharko dute. Gainera, datuen tratamenduan datu pertsonalen babesari buruzko arautegian ezartzen dena bete beharko da.

Lehenengo xedapen iragankorra. *Izapidetzen ari diren prozesuei aplikatu beharreko araubidea.*

1. Errege lege-dekretu honen 1. artikuluan egiten diren aldaketek errege lege-dekretua indarrean jartzen denetik aurrera hasten diren utzarazpen-prozedurei eragingo diete, bai eta organo judizialean izapidetzen ari diren prozedurei ere, nahiz eta etendura dagoeneko aginduta egon 11/2020 Errege Lege Dekretuaren aurreko testuen arabera (11/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 31koa, Gizarte- eta ekonomia-arloan presako neurri osagarriak ezartzen dituen COVID-19ari aurre egiteko).

Hala ere, martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuak 1. artikuluan arautzen duen etendura ez zaie aplikatuko artikuluko horretan ezartzen denarekin bat etorritik etendako utzarazpen-prozedurei honako kasu honetan: erabaki denean utzarazpen-prozedurak aurrera egin behar duela, artikuluko horren 4. apartatuaren arabera errentatzailea kalteberatasun ekonomikoko egoeran dagoela egiaztatu ondoren.

2. Hirugarren xedapen gehigarrian arautzen den konpentsazioa errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik aurrera etendura agintzen den prozedura guztiei aplikatuko zaie, ezartzen denarekin bat etorritik, baldin eta 11/2020 Errege Lege Dekretuak (11/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 31koa, Gizarte- eta ekonomia-arloan presako neurri osagarriak ezartzen dituena COVID-19ari aurre egiteko) 1. eta 1 bis artikuluetan ezartzen duenari heltzen bazaio.

Azken xedapenetako lehena. *Eskumen-titulua.*

Errege lege-dekretu hau Espainiako Konstituzioaren 149.1 artikuluen 1., 6., 8., 13., 18., 21. eta 25. apartatueta xedatzen denaren babesean ematen da. Izan ere, horien arabera, Estatuak eskumen eskusiboa du honako arlo hauek arautzeko, hurrenez hurren: konstituzio-eskubideak egikaritzean eta konstituzio-eginbeharrak betetzean espainiar guztien berdintasuna bermatzen duten oinarriko baldintzak; prozedura-legeria; legeria zibila; jarduera ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarriak eta koordinazioa; administrazio publikoen araubide juridikoaren oinarriak; administrazio-kontratu eta -emakidei buruzko oinarriko legeria; lurreko garraioak, eta meatzeen eta energiaren araubidearen oinarriak.

Azken xedapenetako bigarrena. *Indarrean jartzea.*

Errege lege-dekretu hau *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratzen den egunean bertan jarriko da indarrean.

Madriren, 2020ko abenduaren 22an.

FELIPE E.

Gobernuko presidentea,
PEDRO SÁNCHEZ PÉREZ-CASTEJÓN

I. ERANSKINA**Estatuaren eskumeneko eta erabilera orokorreko bidaiarien errepideko garraio-zerbitzu publiko erregularrak kudeatzeko kontratuen konpentsazioak kalkulatzeko metodoa**

1. 2020ko ekainaren 22tik 2021eko ekainaren 30era arteko emaitza kalkulatzeko modua:

$$\text{Diru-sarrera (n)} - \text{Kostua (n)} = \text{Emitza (n)}$$

Non:

Diru-sarrera (n): jarduerarekin lotutako diru-sarrerak, kontratistak n aldian aitortutakoak.
Kostua (n): n aldiko kostu aitortuak.

2020ko ekainaren 22tik 2021eko ekainaren 30era arteko kostuen guztirako balioa ezin da izan eragiketa honen emaitza baino handiagoa:

$$[[0,35 * \text{egindako km (n - 1)}] + [0,65 * \text{egindako km (n)}]] * 1,34 \text{ €}$$

2. 2019ko aldi bereko emaitza kalkulatzeko modua:

$$\text{Diru-sarrera (n - 1)} - \text{Kostua (n - 1)} = \text{Emitza (n - 1)}$$

Non:

Diru-sarrera (n - 1): kontabilitate analitikoko diru-sarrerak (n - 1)
Kostua (n - 1): kontabilitate analitikoko urteko kostuak (n - 1)
n - 1: 2019ko aldi bera.

3. Konpentsazio ekonomikoaren guztirako zenbatekoa kalkulatzeko modua:

$$\text{Konpentsazio ekonomikoa} = \text{Emitza (n - 1)} - \text{Emitza (n)}$$

(Kenketaren emaitza negatiboa bada, ez dago konpentsazioa jasotzeko eskubiderik.)
2020ko ekainaren 22tik 2021eko ekainaren 30era arteko konpentsazio ekonomikoaren guztirako balioa ezin da izan aldi horretako kostuen eta diru-sarreraren arteko diferentzia baino handiagoa.

II. ERANSKINA**Estatuaren eskumeneko eta erabilera orokorreko bidaiarien errepideko garraio-zerbitzu publiko erregularrak kudeatzeko kontratuen konpentsazio ekonomikoa ezartzeko eskabidea eta horrekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa**

A) Eskatzaileek honako datu hauek adierazi beharko dituzte nahitaez, eta hemen agertzen diren hurrenkera berean:

a) Izena edo sozietate-izena eta identifikazio fiskaleko zenbakia, eskatzailearen ordezkartzan diharduen pertsonaren datuak (egonez gero) eta kontratuaren kodea eta izendapena.

b) 2020ko ekainaren 22tik 2021eko ekainaren 30era arteko diru-sarrerak, bidaiariak, bidaiari-kilometroak eta sarrera-kilometroak.

c) Aztertutako aldian jasandako kostuak. Kalkulatutako kostua (kostua km-ko).

d) Aztertutako aldiko ibilgailu-kilometroak.

e) Aztertutako aldiko emaitza.

- B) Eskabidearekin batera, dokumentazio hau aurkeztu behar da:
- Konturako aurrerakina egingo den banku kontuaren (IBAN) ziurtagiria, kreditu-entitateak sinatua eta zigilatua.
 - Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren ziurtagiria, zerga-betebeharrak bete direla adierazten duena, errege lege-dekretu hau indarrean jarri ondokoa.
 - Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren ziurtagiria, Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean daudela adierazten duena, errege lege-dekretu hau indarrean jarri ondokoa.
 - 2020ko ekainaren 22tik 2021eko ekainaren 30era arteko diru-sarreraren eta kostuen kontabilitate-egiaztapenaren txostena, aditu independenteak egina.

III. ERANSKINA

Estatuaren eskumeneko eta erabilera orokorreko bidaiarien errepideko garraio-zerbitzu publiko erregularrak kudeatzeko kontratuen konpentsazioaren aurrerakina kalkulatzeko metodoa

Kudeatzen duen kontratuan berriz ere oreka ezartzeko eskatzen duen enpresa kontratista bakoitzari emango zaion konturako aurrerakina honela kalkulatu da:

Konturako aurrerakina (€) = Aurrerakinaren guztirako zenbatekoa * (2019ko ibilgailu-kilometroak / Kontratuen guztirako 2019ko ibilgailu-kilometroak)

Non:

Aurrerakinaren guztirako zenbatekoa: Estatuaren eskumeneko kontratu guztietako aurrerakinaren guztirako zenbatekoa.

2019ko ibilgailu-kilometroak: enpresa kontratistaren aitopenen arabera 2019an kontratupean egindako ibilgailu-kilometroaren kopurua.

2019ko ibilgailu-kilometroak, kontratu guztiak barne: enpresa kontratisten aitopenen arabera Estatuaren eskumeneko kontratuen pean 2019an egindako ibilgailu-kilometroaren kopurua.

Kontratu guztietako aurrerakinaren guztirako zenbatekoa 11.500.000 euro izango da. Nolanahi ere, ezingo da erabili partidan baliagarri dagoena baino gehiago.